
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

VICARLI HANDLING S.L.U.	Comarca 2 poligonoa, A kalea, 59 eta 61, Espartza Galar C.P. 31,191



VICARLI HANDLING SLU enpresaren instalazioa (helbidea: Comarca 2 poligonoa, A kalea, 59 eta 61, Espartza Galar) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenei lotuta dago (horren bidez, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dira) BEHE MAILAN, eta 7. artikuluan aurreikusten den jakinarazpena egin dio Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari, artikulu horren 1. apartatuan ezarritako edukiarekin.

Establezimenduaren jarduera

Jarduera logistikoa, hainbat produktu gordetzea eta biltegiratzea.

Azken bisitaren eguna

2024ko azaroaren 26a, asteartea

Balizko istripu larriak eta sor ditzaketen eraginak

Vicarli Handling SLU enpresaren ekoizpen-instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenerako kaltegarriak daude. Establezimendutik kanpo eragina izanen lukeen istripu larri baten kasurik kaltegarriena produktu erregarrien suteak eragindako laino toxikoa sortzea da. Pertsonei eragin dakizkiekeen kalteak toxikotasun akutuaren ondoriozkoak dira, arnastuz gero, eta erredura larriak esposizio-bideetan. Establezimenduaren kanpoaldean badaude lurzorua/ura kutsatzeko beste kasu ez hain larri batzuk.

Kontrolerako hartutako neurriak.

instalazioan honako neurri hauek hartu dira:

- Atxikitze askak
- Korronte zuzeneko etenik gabeko elikadura-sistema
- Abisuak emateko barne-sistemak
- Alarma-sakagailuen eta detekzio automatikoaren sarea
- Suteen aurkako ur-harguneak
- Su-itzalgailuak instalazio osoan zehar.

Instalazioetako substantzia arriskutsuak

KSC PHYT-ACTYL 03	**H272**	Sute bat larriagotu dezake, erregarria da
KSC SPEED III	**H272**	Sute bat larriagotu dezake, erregarria da
	H315	Larruazalaren narritadura eragiten du
	H319	Begietako narritadura larria eragiten du.
CORONA K	**H272**	Sute bat larriagotu dezake, erregarria da
	H318	Lesio larriak begietan
VITALFIT	**H290**	Metalentzat korrosiboa izan daiteke.
	H314	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
	H318	Lesio larriak begietan
	H411	Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin
MULTIGRAM	**H314**	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan
	H411	Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin
MGSRIMR035C/DD80	**H315**	Larruazalaren narritadura eragiten du
	H317	Puede provocar una reacción alérgica en la piel
	H319	Begietako narritadura larria eragiten du.
	H411	Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin
EPIKOTE RESIN MGS LR 235	**H315**	Larruazalaren narritadura eragiten du
	H317	Larruazalean erreakzio alergikoa eragin dezake
	H319	Begietako narritadura larria eragiten du.
	H411	Toxikoa organismo urtarrentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin

Lantegian istripu larriren bat eragin dezakeen ezbeharren bat gertatuz gero, inguruko enpresei abisatu eta jakinaraziko zaie sirena akustikoaren bidez, polizia-autoetako megafoniaren bidez, irrati eta komunikabideen bidez, bai eta telefonoz ere inguruko instalazioei, hartu beharreko neurrien berri emateko.

Nola jokatu istripu larririk izanez gero

Industrialariak neurri egokiak hartu behar ditu, eta 112 zenbakira deitu, istripuaren ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen.

Istripu larriaren izaeraren arabera neurri hauek hartuko dira: Konfinamendua edo ebakuazioa/urruntzea.

Konfinamendurako eta norberaren babeserako jarraibideak

- Kalean izanez gero, babes itzazu arnasbideak zapi batekin.
- Itxi itzazu ateak eta leihoak, jaitsi pertsianak eta ahal izanez gero haietatik urrundu.
- Behar izanez gero, jar itzazu zapi hezeak zirrikituetan.
- Ez erabili aireztatze gailuak.
- Ekidin itzazu eraikinetako behealdeak, hala nola sotoak edo garajeak.
- Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
- Tokiko irratiei entzun eta gomendio eta jarraibideei jarraitu

Urruntzeko eta babesteko jarraibideak

- Bidean, babes itzazu arnasbideak zapi edo trapuekin eta bilatu babesleku bat.
- Behin helmugan, eraikin edo lokal baten barrualdera sartu eta itxi leihoak eta ateak.
- Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
- Tokiko irratiei entzun eta agintariek ematen dituzten gomendio eta jarraibideei jarraitu.

Informazio gehiago lortzeko

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua. Agoitz kalea 35 bis. Tel.: 848427171 proteccioncivil@navarra.es

http://www.proteccioncivil.es/riesgos/quimicos/presentacion